

IRABAZI ITURRIA

SilenRoom-en diru-sarrerak oinarritzen dira **paketeen salmentan**, hau da, panelen multzoak eta instalazioa barne duten produktuen salmentan. Prezioa dagokion segmentuaren tamainara eta beharretara egokituta dago, bai hezkuntza-erakundeak, bai enpresak, bai etxebizitzak kontuan hartuta.



HEZKUNTZA:

Ikastetxeetan gelako panelen pakete batek 10 panel inguru izango ditu, instalazioa eta produktua bera barne. Pakete hau 1.200 €tan saltzen da, eta guri suposatuko digun kostua, 805 €koa da, %33ko irabazia emanez. Gure produktua lehenengo eskuratzen duten ikastetxeentzako 10%eko deskontua eskaintzen da, 1.080 €ko prezioan.



ENPRESA ETA BULEGOAK:

Open space edo bulego handietan 30 paneleko paketeak eskaintzen dira, instalazioa, dekorazioa eta teknologia barne. Prezioa 3.400 €koa da, eta guri suposatuko digun kostua 2.150 €koa, %37ko irabazi garbia emanez. Deskontuak eskain daitezke pakete asko edo erosketen bolumen handia eginez gero, bezeroen gogobetetze eta leialtasuna sustatzeko.




ETXEBIZITZA:

Gela bateko panelen paketeak 6 panel inguru ditu, prezioa 700 €koa da, eta guri suposatuko digun kostua 470€koa, %33ko irabaziarekin. Deskontuak adostu daitezke familia ugariarentzat edo lehen erosleentzat, bezeroak fidelizatzeko.



Ordaintzeko aukeren artean ordainketa bakarra edo zatika ordaintzeko aukerak emango ditugu. Zatika ordainduz gero, gehienez urte batean ordaindu behar dira, hilabete bakoitzeko ordainketa proportzionalekin, eta interes tasa oso baxuak aplikatuz, %2-3 inguru. Horrela, bezeroek errazago eskuratu ditzakete gure paketeak, eta gure enpresak diru-sarrera egonkorrak izango ditu.



SilenRoom-ek diru-sarrera nagusiak modu zuzenean eta garden batean lortzen ditu, eta aplikatzen dituen prezioak logikoak eta merkatura egokituak dira, irabaziak %33-37 artean mantenduz, gehiegikeriarik gabe. Pakete bakoitzak balio handia ematen du, kontzentrazioa eta errendimendua hobetuz, zarata eta estresa murriztuz, eta horrek gure bezeroen gogobetetzea eta leialtasuna ziurtatzen du.